

URAK TTIKI DIRE, GILKITXARO ANTZERKI TALDEA

Negarra eta barrea saio berean

ANE ZABALAK eta Galder Perezek osatzen duten Gilkitxaro antzerki taldeak *Urak Ttiki dire* antzezlanaren aurkeztu du berriki. Bilboko Pabellon 6 aretoan egin zuten estreinaldia, azaroaren 8an, eta harrera ona eskaini zion publikoak. Gaizka Sarasola aktore eta musikariak idatzia da *Urak Ttiki dire*, espresuki Gilkitxaro taldeak antzezteko. Ez da ohikoa, aurretik egindako lan guztiak, *Miranderen Kabareta* edo *8 Begi* kasurako, taldeko kideek berek idatzi baitituzte.

Samuel Beckett antzerkiegilearen *Godoten Esperoan* antzezlaren kutsua nabaria du Gilkitxaroren lan berri honek. Bi pertsonaiak, Ilargi eta Willy, espazio ezezagun batean daude, suposatzea da basoan egin dutela topo, inoiz agertuko ez den balizko errege baten zain.

Drama, komedia eta absurdoaren uretan murgiltzen dira aktore biak, iraganaz, etorkizunaz, badenaz eta ez denaz, borrokaz, maitasunaz, itxaropenaz zein amaieraz mintzatzeko, denbora geldirik dagoela.

Komedian aritu dira beti Ane eta Galder, eta bitxi egiten da beraiek teatro serioa egiten ikustea. Hala ere, emaitza ezin hobea da: tentsioa, drama eta komedia, dena barre artean, aktoreak muturretik muturrera doaz eta.

Abenduaren 14an Lesakan, eta abenduaren 27an Larrabetzuko



Urak ttiki dire
Gilkitxaro antzerki taldea.

Jokalariak: Galder Perez eta Ane Zabala. **Testua:** Gaizka Sarasola. **Estreinaldia:** Bilbon, Pabellon 6 aretoan, azaroaren 8an.

Hori Bai gaztetxean izango da Gilkitxaroren azken antzezlanaren gozatzeko aukera.


Pabellon 6 aretoak eskainitako euskarazko emanaldia bikoitza izan zen. Bigarren saioan Oh! My God taldearen *Zer duzu Amy?* antzezlanaren ikusi ahal izan genuen.

Leire Ucha aktorea bikain sartzen da Amy Winehouse-aren larruan,

hori baita abesbatzako bigarren solistaren –Daisy izen artistikoz ezaguna– asmoa. Daisyk edozein gauza egingo luke Amyren ahotsa eta talentua bereganatzeko. Soul abeslariaren heriotzaren berri izatean, Londreseko Edgwareburyko kanposantura abiatuko da, Amyren ahots kordak eskuratzera.

Leire Uchak abesten eta dantzatzen du, eta bakarriketa komiko ederra eskaintzen. Aurretik egindako beste lan batzuetan bezala (*Lauraren abestia*, *Mamua ala Soka Emakumea*), ondo egiten du lan bizkaitarrak. Daisy barregarri suertatzen da, baina baita maitagarri ere. ■

Myriam Garzia



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com